

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

5164

AGINDUA, 2022ko azaroaren 14koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena, zeinaren bidez deklaritzen baita «Bizipoz Envejecimiento Activo, S. Coop. Pequeña, de Iniciativa Social» deritzon sozietate kooperatiboa onura publikokoa dela.

EGITATEAK

Lehenengoa.– 2022ko apirilaren 4an, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailean sartu zen Beatriz Santamaria Trincadok, «Bizipoz Envejecimiento Activo S. Coop. Pequeña, de iniciativa social» kooperatibaren administratzaile solidarioak, izenpetutako idazkia, erakunde hori onura publikokoa dela deklaratu dadin eskatzeko, 2022ko otsailaren 25eko erabakia betetzearren. Besteak beste, 2020ko eta 2021eko jarduera-memoriak eta 2020. eta 2021. urteetako kontuak erantsi dira.

Onura publikokotzat deklaratzeko eskaera Onura publikoko kooperatiba-sozietateei buruzko prozedurei eta betekizunei buruzko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 2ko 64/1999 Dekretuan ezarritako arauzko baldintzak betetzean oinarritzen da. Izan ere, 5.c artikuluan adierazitako betekizuna barne, erakunde hori, jatorriz irabazi-asmorik gabeko elkarte gisa sortzen dena, Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan inskribatuta dago 2017. urtetik, eta gizarte-ekimenekotzat jo zen gizarte-ekimeneko kooperatibak arautzen dituen apirilaren 4ko 61/2000 Dekretuaren bidez.

Bigarrena.– 2022ko uztailaren 26an, iragarkia argitaratu zen EHAAn, otsailaren 2ko 64/1999 Dekretuaren (onura publikoko kooperatiba-sozietateei dagozkien prozeduren eta betekizunen Erregelamendua onartzen duena) 9. artikuluko hirugarren paragrafoan ezarritakoa betez. Jendaurreko informaziorako epea ireki zen, interesa duen edonork espedientea aztertu eta egoki irizitako alegazioak egin zitzaizkion, hogeitaz eguneko epean. Epe hori igaro ostean, ez da alegaziorik aurkeztu.

Hirugarrena.– 2022ko uztailaren 4an, 64/1999 Dekretuaren 9. artikulua betez, dekretu horren 7. artikuluekin lotuta, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren txostena eskatu zen. Bertan, txostengileak adierazten du erakundea ezagutzen duela, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzen programan sartuta dagoela, eta pertsonaren errespetua, ongizatea eta bizi-kalitatea bilatzen dituzten esku-hartze sozialeko erakundeen multzoan sartzen dela, jarduten duen komunitatearekin lotutako ikuspegi batetik eta eragile publikoekin lankidetzan.

2022ko uztailaren 7an, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak onura publikokoa dela deklaratzeari buruzko txostena egin zuen, horretarako eskatuta.

Aurreko egitateei ondokoak aplikatu behar zaizkie:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Bat etorri Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legeak 156.2 artikuluekin, beren egitekoetan Euskal Autonomia Erkidegoaren interes orokorra sustatzen

laguntzen duten sozietate kooperatiboei onura publikokoak direla aitortuko die Eusko Jaurlaritzak, erregelamenduz ezarritako prozedura, araubide eta betekizunen arabera.

Bigarrena.– Hau da aipatutako erregelamenduzko arau hori : 64/1999 Dekretua, otsailaren 2koa, herri-onurako kooperatiba-sozietateei dagozkien prozeduren eta betekizunen araudia onartzeko dena.

Hirugarrena.– Espedientean jasotako dokumentazioa oinarritzat hartuta, 64/1999 Dekretuaren 7. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozedura-izapideak bete dira onura publikokoa dela deklaratzeko, bai eta erregelamenduzko arau horren 5. artikuluan ezarritako betekizunak ere onura publikoko deklarazioa lortzeko.

Laugarrena.– Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren esku-mena da sozietate kooperatiboak onura publikokoak direla deklaratzeko, hala xedatuta baitago urtarrilaren 9ko 64/1999 Dekretuaren 11. artikuluan, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3.2.l) artikuluari lotuta.

Hori guztia dela eta, aipatutako legegintza-manu horiek eta orokorrean ezartzekoak diren gainerakoak ikusita, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Deklaratzea «Bizipoz Envejecimiento Activo, S. Coop. Pequeña, de Iniciativa Social» deritzon sozietate kooperatiboa onura publikokoa dela.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaioke interesdunek egintza hau gauzatzen duen organoari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, eta, horretarako, bi hilabete izango dira. Epe biak egintza jakinarazi eta hurrengo egunean hasiko dira, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a) eta 46.1 artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 14a.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.